4.- Udal honek herriari aitortzen dio zilegitasun guztia eta bakarra. Hortaz, udal honek, 2007ko maiatzaren 27an, lege arrotz eta neurri errepresiboen gaintik, herriak aukeraturiko ordezkari guztien aitortza exijitzen du, udalerrri guztietan herritarren borondatea errespetatua izan dadin.

5.- Hori horrela izan dadin, alderdi politikoei LOREG delako 182.2 artikulua aplikatzeko urrats guztiak eman dezatela eskatzen diegu, herriak aukeratu ordezkariak aitortza eta eskubide guztiak bereganatu ditzaten.

2.- Este Ayuntamiento no está dispuesto a aceptar que los representantes elegidos por el pueblo sean ilegalizados. Tanto en el caso de los miembros de listas electorales que han sido perseguidos en las elecciones municipales, como los que han sido afectados por la suspensión. De modo que a los concejales de EAE-ANV elegidos por los ciudadanos los considera como agentes e interlocutores políticos.

3.- Este Ayuntamiento denuncia la persecución judicial en contra de los alcaldes y concejales –citaciones, encarcelamiento de Ino Galparsoro, alcaldesa de Arrasate...-

4.- Este Ayuntamiento otorga al pueblo toda la legitimidad, la única y completa. Por lo cual este Ayuntamiento exige el reconocimiento de todos los representantes elegidos por el pueblo el 27 de mayo de 2007, por encima de todas las leyes extranjeras y todas las medidas represivas, para que la voluntad del pueblo sea respetada.

5.- Para que eso sea así solicitamos a los partidos políticos que den todos los pasos necesarios para aplicar el artículo 182.2 de la LOREG, para que los representantes elegidos por el pueblo sean reconocidos y tengan todos los derechos.

Hau da aurkezten den mozioa, atzo urtebete izan ziren hauteskundeak eta jasan genituen partiduen legearen ondorioak.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Zerbait esatekorik? PNV.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai  
EUSKAL HERRIAN DEMOKRAZIA ZERO, MOZIOAREN AURREAN

1. Bizi dugun etengabeko eskubideen zapalkuntza ez zaio, inolaz ere, gure herriak behar eta desio duen soluzio bilaketari lagungarri. Soluzioa baitator, batetik, eskubide ororen zapalkuntza baztertze eta bestetik, gure herriak bizi duen gatazka politikoa soluzio bidean jarriko duen akordio politikoa bilaketatik, Herri honi berezkoa zaion erabakitze eskubidea oinarri duela.

2. Erakunde politikoen aurkako lege kanporatze prozesuek, askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna, elkartze askatasuna eta hiritarren partehartzea bezalakoei -guztiak funtsezko eskubide- eragiten diete zuzen zuzenean; halaber, gure Herriko elkarbizitzari, eta gure gizarteak desio duen normalizazio politikotik urruntzen gaituzte oso.

3. Udal honek garbi dauka, eta horrela adierazi du behin baino gehiagotan, herri honetako ordezkari politiko bat legez kanpo ipintzeko “ad hoc” egina dagoen Alderdi Politikoen Legea, hala nola zentzu berdinean bultzatu diren beste zenbait lege aldaketak, espainiar Estatuak euskal arazoaren inguruan diseinatu eta ezarri duen estrategia orokorraren zati direla. **Baina ezin ahaztu daiteke, estrategi horretan jarraitzeko Espainiako Estatuak ETA erakundea indarkeriazko ekintzak burutzen behar duela, bide batez eta ondorioz ezker abertzale politikoari bide politikoak galerazteko.**

4. Jakin badakigu, Alderdi Politikoen legea aplikatzen duen Auzitegi Gorenaren epaiak zer dioen LOREGaren 182.2 artikulua aplikazioari buruz. Alegia, akordio baten ondorioz aplikatu ezker, lege iruzurtzat hartua izango litzatekeela. Legearen urraketa ekarriko duen urratsik ez dugu emango. Horretarako arrazoi franko dago, baina guztiak baten inguruan laburbil daitezke: Urrats horiek espainiar Gobernuari bidea erraztuko lioketela orain arteko estrategian haratago joateko

5.- Giza eskubide guztien aldeko apustua egiten dugulako, Alderdi Politikoen legeak sortarazi dituen ondorioei aurre egiteko gure



prestutasuna adierazten dugu berriro ere. Horretarako bideak daudelakoan gaude, baina beti errespetutik abiatuta.

6.- Ez da Zumaiaren kasua, baina ez dugu onartzen zenbait Udaletan gure Alderdiko zinegotzi batzuegan ardura zehatzak egotzi nahi izate hori. Are gutxiago helburua jendea mehatxupean jartzea denean.

Hori da esan nahi duguna eta gure ezetzko botua aurkeztu den moziolari.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PSOE

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ: Lo que sí pediríamos y no por nosotros, que también, pero por la traductora que cuando haya cualquier tipo de respuesta escrita que se vaya a proceder a la lectura y que ella no es capaz de traducir porque no es posible en el momento, se nos dé traducido. No podemos tomar en consideración nada, entonces nos dificulta a todos el poder luego contestar, no sabe muy bien lo que se pretende o lo que se dice, si es posible porque ya se ha comentado algunas veces más. No es lo mismo cuando se habla que cuando se lee. Cuando se lee es muy diferente y la traductora no puede, no es capaz lógicamente de seguir.

SRA. PALOMA HEREDERO NEGREDO: Yo quiero decirlos, solicitarlos nuevamente, ya que ahora mismo no sabemos nada de lo que acaba de decir M. Eugenia, no tenemos ni idea, la traductora acaba de decirnos cuatro cosas, cuatro breves líneas pero esto..... Gracias.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Por parte del Gobierno, ya sabeis que todas las documentaciones que ha habido, se han presentado, traducidas.

LIDE AMILIBIA BERGARETXE ANDREA: Por nuestra parte la verdad es que ha sido una respuesta que podía haber sido oral, sin más, lo que pasa es que lo tenía por escrito y lo ha hecho de carrerilla.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Alderdi sozialistak arazo bat dauka euskararekin eta beraiek dira ulertzen ez dutenak. Saiatu beharko liratekeenak beroiek dira, gu geure hizkuntza erabiltzen ari gara eta erabiltzen ari garen horretan, ba bueno, sentitzen dut. Dauden medioak

jartzen dira, iristen gara iristen garen lekuraino, baino zuengandik ere beste jarrera ikusiko bagenu eta beste esfortzu batzuk ikusiko bagenu eskertzekoa izango litzateke.

Alderdi sozialistako zinegotziei, bizitza osoan, edo azken bost urteetan hitz bakar bat ez diet euskaraz entzun. Ondo dago eskatzea, baina ematea ere ez da soberan.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Xabier.

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA: Bai.

Nik, Euskalerrian Demokrazia Zero mozio honetako puntu bat aipatu nahiko nuke, eta puntu hau da: “ez ditugu arazoek konponbideari mesede eskasa egiten dizkieten alde bakarreko irakurketak behar”. Egiten dugun galdera zera da: mozio hau egon zela konponbideari mesede eskasak egiten dion alde bakarreko irakurketak daudelako.

Gu mozioarekin ados gaude, baino baita ere esan hau irakurri duenari, iruditzen zaigula gatazkaren alde bakarreko irakurketa bat egiten duela.

Beraz, guk giza eskubide guztiak betetzen ditugunez, mozioarekin ados gaude, baina hemen jartzen duen bezala alde bakarreko irakurketa bat egiten duelako, abstentzioa bozkatzeko dugu.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Gaurko bozeramaileen batzordean, eztabaidatutako gai bat izan da. Gu ere Aralarrek esan duen ildotik jarraituz, hemen datozen hainbat gauzekin ezados gaude. Irakurketa politikoak egiten direnean, irakurketa horiek bere osotasunean egin behar direla diogu, mozio honek irakurketa politiko jakin bat egiten duela, eta irakurketa politiko jakin horretatik dator beste irakurketa batzuk egin behar direla.

Zentzu horretan eta Aralarrei egindakoari jarraituz, ba..ez gaude desados hemen mozioan esaten diren gauzekin, baina iruditzen zaigu edo faltan botatzen dugu beste zenbait gauza ere esan beharko liratekeela, beraz horregatik gu ere Abstenitu egingo gara.

M. Eugenia, ez dakit, barkatu, M. Eugeniak zerbait zeukan.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Lehenik eta behin PNV-k esaten zuen ba.. gatazkaren ondotik, aztertu edo egin behar diren azterketa edo diskurtso antzuek ez dutela konponbiderik, nik uste dut alderdi politikoek egin behar dutena da ekarri marko politiko eta herri honen beharra mahai gainera,

marko demokratikoa eratuz, eta eskubide aitortzaren bidez ditugun arazoei irtenbidea eman.

ANV-ren zinegotziak egon bazeudelako, ez dakit badauden eta egon diren zeren ANV-ren izenean hitzegitea nahiko terreno irristakorra bait da, hobeto, Zumaiako Abertzaleen izenean.

Ba bueno hemen ere arazoa badaukagu guk, eta Gipuzkoako Diputazioan Junta Jeneraletan ez daukagu arazoa, aurreko hauteskundeetan bigarren alderdi bozkatuena izan ginen eta agian ez da isladatzen inondik inora, PNV-k berak baino bozka gehiago lortu genituen, baino hori ez da inondik inora ikusten, beraz Zumaian ere arazoa eduki badaukagu.

Beste alde batetik alde bakarreko irakurketa egiten dela edo zioen, ez dut uste alde bakarreko irakurketa egiten denik, nik uste dut alde bateko gatazkaren alde bateko irakurketa egiten dela beste alde asko ere badaude eta alde guztietan ados jartzea oso zaila izango da, oso, oso zaila izango da, baino alde edo ados gauden aldeetan, aldeak behintzat nik uste dut mimatu eta aurrera atera beharko genituzkeela eta desadostasunak sortzen dituztenak horiek landu beharko genituzkeela, nik uste dut alde bakarreko irakurketa ez dela esatea herritar oro, eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela aldarrikatzen du. Nik uste dut, hemen guztiok irakurketa hori egiten dugula. Ez dut uste alde bakarreko irakurketa izango denik, era berean euskal herritarrok dagokigun gure herriaren etorkizuna erabakitzea.

Mozio honek hitzegiten du, hitzegiten duenaz. Baino politikaz hitzegiterakoan gai konkretuetaz hitzegiteko aukera ere eduki beharko dugu, ezin dugu beti dena nahastu behar eta dena kakaztu behar azkenean ezertxore aurrera ez ateratzeko, ez dugu momentu oro aprobetxatu behar, “¡ah! como no me dices esto en este sitio y ahora en este otro no” ez nik uste dut ados edo espazio komunak zaindu eta bultzatu egin behar ditugula eta komunak ez diren espazio horiek lantzen eta adosten joango gara, besteak gordetzen eta lantzen ditugun heinean, ez dakit, nik uste dut ados gauden gaietan ados jartzen ez baldin bagara edo eraginkorrean aurrera ateratzen ez baditugu ba.. desadostasuna sortzen dituztenak ba... noiz ez gara adostasunera iritsiko, ados gauden gaietan ez baditugu aurrera ateratzen, momentuz behintzat bukatu dugu.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alderdi sozialistak.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ: Solo por contestar, dos cosas: los concejales nos vamos a ausentar del pleno y no vamos a participar en lo que queda del desarrollo del mismo correspondiente a las mociones. Es cierto yo no sé euskara, ojalá supiera euskara, eso no sólo eso y mucho más en contestación al que ha dicho que aprenda euskara, y le podía decir a él que aprenda no sé cualquier cosa ó de otro tipo, y lo digo simplemente por comportamiento y convivencia, pero bueno no voy a entrar a discutir ese

tema. Me gustaría saberlo y me gustaría saber muchas mas cosas pero por desgracia uno tiene la capacidad que tiene, pero sí es también cierto y eso contestandote Andoni que yo no hablo el euskara pero ya te digo que lo sabes de sobra que no lo conozco, pero es que precisamente el idioma tanto el uno como el otro son cooficiales y oficiales son los dos, y por lo tanto tienen los mismos derechos uno y otro, lo mismo que lo tienes tú en euskara, yo en castellano, por lo tanto, no tengo porque recibir ningún tipo de queja porque pida, me estrese, y solicite que se me hable en castellano, estoy dentro de la legalidad y es uno de mis derechos.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Nik bakarrik esan nahi nuen Emiliano, nik ondo ikusten dudala, niri ez zait iruditzen inork besteari ezer leporatu dionik, dena izan da espresio bide barruan, “dentro de la libertad de expresión”, eta zentzu horretan hemen ez da ezer esan iruditzen zait inor horrela jeikitzeke, ez alderantziz, eta nik gonbidatuko nizueke eztabaida honetan parte hartu dezazuen ahalik eta normalen eta egokien, gero bakoitzak esaten du, bakoitzari iruditzen zaiona, baino inori errespetorik falta gabe eta bai Paloma eta Emilianori eskatuko nieke: que con toda normalidad participeis de este debate.

Gero arte.

Besterik gabe, ez dakit zuek PNV bezala zerbait esatekorik badaukazuen ?

Ezerrez, Aralar, ezerrez, bueno bozkatzera pasako gara.

Kontrako botuak, PNV-k  
Abstentzioa, Aralarrek  
Aldeko botua, ANV-k, eta  
Abstentzioa, Eusko Alkartasunak.

Empate.

IDAZKARIA: Barkatu, orduan bigarren bozketa bat egin behar da, eta gero alkatearen botuak erabakiko du berdinketa, hori da, egiten den prozesua.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Beraz, bigarren bozketara pasatuko gara.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Alkateak abstenitzen segi behar du, Alkatea, abstenitu egiten da.

IDAZKARIA: Baino erabaki beharra dago, bai edo ez.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:**

PNV – kontrako botua,  
Aralarrek, abstentzioa,  
ANV-k , aldeko botua, eta gu abstenitu berriz ere, eta Alkateak beste gauzarik egiterik ez duenez eta horretara behartua dagoenez, kontrako botua ematen du.

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botuak: 3 ANV  
Aurkako botuak: 3 EAJ  
Abstentzioak: 3 ( 2 EA eta 1  
Aralar)  
Azaroak 28ko  
2568/1986 ED-ko 100,2 atalean  
ezarririkoarekin bat bigarren  
bozketa egiten da berdinketa  
hausteko,

Aldeko botuak: 3 ANV  
Aurkako botuak: 3 EAJ  
Abstentzioak: 3 ( 2 EA eta 1  
Aralar)

Berdinketak irauten duenez,  
Lehendakariaren kalitate botuak  
erabakitzen du:  
Lehendakariak aurka bozkutzen  
du.

**ERABAKI DA:**

Euskal Herrian demokrazia  
zero mozioa ez onartzea.

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: 3 ANV.  
Votos en contra: 3 PNV  
Abstenciones: 3 ( 2 EA eta 1  
Aralar).  
De conformidad a lo  
dispuesto en el art. 100,2 del RD  
2568/1986 de 28 de noviembre se  
procede a realizar una segunda  
votación

Votos a favor: 3 ANV.  
Votos en contra: 3 PNV  
Abstenciones: 3 ( 2 EA eta 1  
Aralar).

Como persiste el empate,  
decidirá el voto de calidad del  
Presidente:  
El Presidente vota en contra.

**SE ACUERDA:**

No se aprueba la moción  
presentada democracia cero en  
Euskal Herria.

**3.2.-33/01, AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN  
AUZIAREN AURREAN AURKEZTEN DEN MOZIOA:**

3.2.- MOCION QUE SE PRESENTA ANTE EL CONTENCIOSO SUMARIO 33/01 SOBRE EL MOVIMIENTO A FAVOR DE LA AMNISTIA:

ALKATE LEHENDAKARIA: Bigarren mozioa: AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN KONTRAKO AUZIAREN INGURUAN

**33/01, amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean adierazi nahi dugu:**

Dispertsioa salatzea ez da delitua. Preso politikoen kolektiboaren kontra hamarkadatan ezarri den eta ezartzen den dispertsio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen egoera da delitua.

Tortura salatzea ez da delitua. Torturatzea eta tortura ahalbidetzen duen tresneria hori guztia da delitua; salbuespeneko tribunalak, inkomunikazio legea eta funtsean torturatzeko eraikia den inpunitate esparrua bera da delitua.

Errepresioa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Estatuen biolentzia eta eskubide urraketa dira delituak

**Ante el sumario 33/01, contra las gestoras pro amnistía, queremos manifestar lo siguiente:**

Denunciar la dispersión no es delito. El delito está en el estado de excepción que surge como consecuencia de las medidas extremas y de la dispersión que ha sido aplicada durante décadas y está siendo aplicada hoy en día.

Denunciar la tortura no es delito. El delito está en torturar y en todo el entramado que permite la tortura; los tribunales excepcionales, la ley de incomunicación, y en definitiva el ámbito de impunidad creado para poder torturar es lo que constituye delito.

Denunciar la represión y proteger los derechos de las personas no es delito. El delito está en la violencia del Estado y en la vulneración de derechos.

Elkartasuna ez da delitua. Presoak eta euskal herrian errepresioa jasaten duten milaka emakume eta gizon babes eta elkartasunik gabe uzteko mugimenduen kontrako kriminalizazio eta erasoak dira delitua.

Preso, iheslari eta beren senitartekoak lagundu eta babestea ez da delitua. Kolektibo hauek hondoratzeko eta zatitzeko helburuarekin burutzen diren jazarpen, eraso eta eskubide urraketa horiek guztiak dira delitua.

Auzipetu dutena eta epaitu nahi dutena Estatuaren biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna da. Frantziako eta Espainiako estatuak euskal gizartearen eta munduaren aurrean biluzten dituen eta beren izaera ez demokratikoa begi bistako egiten duen testigu nagusia erditik kendu nahi dutelako.

La solidaridad no es delito. El delito está en los ataques y la criminalización que sufren los movimientos que trabajan a favor de los presos, mediante los cuales se quiere dejar desamparados y desprotegidos a miles de hombres y mujeres que sufren la represión en Euskal Herria.

Ayudar y amparar a los presos, a los refugiados y a sus familiares no es delito. El delito está en la persecución, los ataques y vulneración de derechos que se llevan a cabo para hundir a estos colectivos.

Lo que quieren enjuiciar y juzgar es la denuncia de la violencia y la represión de los estados y la solidaridad con todos los presos y represaliados. Porque quieren quitar de en medio el principal testigo que desnuda a los Estados Español y Francés ante la sociedad vasca y ante todo el mundo y el que deja de manifiesto su naturaleza antidemocrática.

Honenbestez, udal honek ondorengo eskakizun eta konpromisoak zehazten ditu:

- elkartasun eta babesa luzatzen diegu amnistiaren aldeko mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militante guztiei
- auzi honek dakartzan galera ekonomikoei aurre egiteko 1.000 euroko diru laguntza emango diegu.
- Kriminalizatu nahi den amnistiaren aldeko mugimenduak bere lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzen dugu Espainiako estatuaren eta sistema judizialaren aurrean eta bere lan sozial eta politikoan jarraitzeko ezartzen ari zaizkien trabak gainditzeko exigentzia luzatzen dugu. Auzi honen amaierarekin batera, debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea.
- Eskubide zibil eta politikoen urraketa, tortura eta euskal herritarren kontrako errepresio bidegabearen zerrenda amaigabea ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagerpena aldarrikatzen dugu.

Por todo lo cual, este Ayuntamiento secunda las siguientes peticiones y los siguientes compromisos:

- Ofrecemos nuestra solidaridad y nuestro amparo a los 27 encausados del movimiento pro amnistía y a todos los militantes de dicho movimiento.
- Les concedemos una subvención de 1.000 euros para poder hacer frente a las pérdidas económicas que supone este juicio.
- Revindicamos la legitimidad que tiene el movimiento pro amnistía que se quiere criminalizar, para que seguir con su trabajo ante el Estado Español y su sistema judicial y exigimos que se eliminen las trabas que se les están poniendo en su trabajo social y político. Que se ponga fin a este juicio, así como a las prohibiciones y las criminalizaciones.

Exigimos la desaparición de la Audiencia Nacional que es la que posibilita que se lleve a cabo una lista interminable de actuaciones de injusta represión contra los ciudadanos de Euskal Herria.

Hau da bozkatzeko ekarri dugun mozioa,



ALKATE-LEHENDAKARIA: M. Eugenia,

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA:

**33/01, amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auzia dela eta, EAJko Udal Taldeak, mozio alternatibo bezala ezin aurkeztuz, honako testuan adierazi nahi du bere iritzia Udalbatza honen aurrean:**

1.- Norbanako giza eskubide guztien aldeko jarrera irmoa adierazten dugu. Printzipio humanitarioekin zein gizakien eskubide eta askatasunarekin dugun konpromisoa.

2.- Euskal presoak jasaten ari diren dispertsio, urruntze eta inkomunikazioa dira beraiei eta beren familiei Madrileko kartzela politikak ezartzen dien zigor gehigarriak handiena.

3.- 27 auziperatuek salatu dituzte gehiegikeri hauek; horregatik eramanak izan dira epaitegietara, ETA-kide izatearen akusaziopean.

4.- Gaur, beste behin ere, “dena ETA da” esaten duen diseinu politikotik eratortzen diren gehiegikeri judizialak salatzen ditugu.

5.- Gatazkaren humanizazioaren eta elkar-ulertzearen alde jokatu nahi dugunok, giza eskubideen etengabeko urraketa guztiak salatzea exijitzen dugu.

6.- Bizi dugun egoera politiko honetan, auzi hau ere bake eta normalizatorako oztopoa bilakatzen ari da. Irekitako kausa penaletan zuzeneko erantzukizun eta eskumena duten Estatuko instituzioei jarduera guzti hauei amaiera eman diezaietela eskatzen dugu.

Berez oso erlatiboa izango litzateke, baina botua ematekotan iritzia, ezetzkoa.

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA:

Amnistiaren Aldeko  
Mugimenduaren kontrako  
epaiketaren aurrean Aralar udal  
taldeen mozioa

Amnistiaren Aldeko  
Mugimenduaren kontrako  
epaiketa Euskal Herriko gatazka  
politikoaren ondorioz sortutako  
urraketa etengabeen adibide bat  
gehiago da. Egoera horren  
aurrean, giza eskubide  
guztiekiko gure konpromisoa eta  
aldarria berretsi nahi dugu

1. Giza eskubide guztiekiko  
konpromisoa geure egiten dugu,  
eta euskal herritar guztien talde  
zein norbanakoen giza eskubide  
guztiak –zibilak eta politikoak  
barne- bermatu daitezela  
eskatzen dugu.

2. Bide politiko hutsen aldeko  
konpromisoa berretsi nahi dugu.  
ETAren atentatuak gaitzesten  
ditugun bezala, tortura,  
dispertsioa edo erabat  
politizatutako eta neurrigabeko  
erabaki judizialen kontrako  
jarrera berresten dugu.

Moción del grupo municipal de  
Aralar ante el juicio contra  
Gestores Pro-Amnistia

El juicio contra el movimiento  
pro-amnistía es un ejemplo más  
de las continuas conculcaciones  
de derechos que se vienen dando  
a raíz del conflicto político de  
Euskal Herria. Ante ésta  
situación debemos ratificar  
nuestro compromiso con la  
defensa de todos los derechos  
humanos:

1. Nos reafirmamos en el  
compromiso y la defensa de  
todos los derechos humanos,  
tanto individuales como  
colectivos del conjunto de la  
ciudadanía de Euskal Herria,  
incluidos los derechos civiles y  
políticos, y exigimos sean  
garantizados estos.

2. Reiteramos nuestra apuesta  
por cauces exclusivamente  
políticos. Al igual que  
reprobamos los atentados de  
ETA, mostramos nuestro total  
rechazo ante la tortura, la  
dispersión y las decisiones  
judiciales politizadas y  
desproporcionadas.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideen kontrako epaiketa bermerik gabe egiten ari dela salatu beharrean gara. Epaiketa hori bertan behera gelditu dadila eskatzen dugu.

4. Entzutegi Nazionala salbuespen entzutegia den neurrian, salbuespen epaitegiak bertan behera utz daitezela aldarrikatzen dugu.

3. Denunciamos la falta de garantías en el juicio contra miembros de las Gestoras pro-Amnistia. Instamos a que se suspenda ese juicio.

4. Solicitamos la supresión de la Audiencia Nacional, y del resto de tribunales de excepción

Esan behar dut, hau aurkeztu dugula bozeramaileen batzordean eta adierazi nahi dizuet hau ezin dela eztabaidatu pleno honetan. Iruditzen zaigu aurrera atera zitekeen mozio bat dela eta horrela izango litzatekeela, baino ezingo da eztabaidatu.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Gu ere horren aldekoak ginen eta nolabaiteko zera egitekoaren aldekoak ginen, eta guk planteatzen genituen beste zenbait planteamentu ba genuen, eta uste dut akordiora iristeko moduan geundela baino aurkeztu dutenak horrela nahi izan dutelako ezta eztabaidatu izan eta beraz, bakarrik, originarioa, aldez aurretik beraiek botatu eta hautatu dutena aurkezteko modua izan da. Zentzu horretan eta aurreko hiru aukerari jarraituz iruditzen zaigu beste irakurketa batzuk ere egin beharrekoak direla eta gure abstentzioa ematen dugu.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Lehen bozeramaileen batzordean, aurkeztu duzue, zuen mozioa gurearen transakzio bat edo esan zitekeena, baino beti ere guk, beroien izenean aurkeztu dugu zergatik, azken finean, mozio hau amnistiaren aldeko mugimenduak aurkeztu du, guk ekarri dugu udalera beroiek idatzi dutena, eta mozio honetan amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean duten jarrera agertzen da.

Amnistiaren aldeko mugimenduak egiten duena da tortura salatzea, errepresioa salatzea, elkartasuna eta babesa ematea, eta gauz horietaz hitzegin nahi zuen amnistiaren aldeko mugimenduak, eta gauz horiek egiteagatik dago dagoen eran.

Berriz ere mahai gainean jartzea, betiko debate santu hori, ez dakit, zertara eramaten gaituen, ez dakit, zer behar daukagun azkenean, ez dakit, zer obsesio daukagun, badakigu nora eramaten gaituen eta badakigu non

bukatzen den debate hori, lehen nioena ados gauden gauzetan, ados jarri gaitezen desadostasunetaz hitzegiten hasi nahi?. Horrela ez goaz inora. Zeren Amnistiaren aldeko mugimenduak duen arazo bakarra da estatuak eragiten dion errepresioa eta eragiten dizkion eskubideen urraketak, hitzegin ezazue amnistiaren aldeko mugimenduaz gaurkoagatik behintzat, faborez.

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA: Mozioan adierazten den gauza bakarra da, ETAREN atentatuak gaitzesten ditugun bezala, tortura, dispertsioa eta erabat politizatutako eta neurri gabeko erabaki judizialen kontrako jarrera berresten dugula.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Zergatik ez dugu hitzegiten, Emakumeen kontrako biolentziaren kontra gaudela, eta nola ez, zergatik ez dugu hitzegiten langileen ETT edo langileen sinestrabilidadearen kontra eta zerikusirik ez daukana momentu honetan, mozio honetan txertatzeko.

Zertan ez dugu, munduan gosez hiltzen diren miloika eta miloika pertsonen egoera salatzen. Nik ez dut ulertzen, nik ez dut konesiorik ikusten, baino, konesio hori benetan barneratuta eduki badutela batzuk nabarmena da. Amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean adierazpen instituzionalaz hitzegiten ari gara, ez ETA-ren aurrean, ez aprobetxatu ez dakit beti dena nahasteko, eta bueno a ver si colamos todo, o sea, ez dakit nik uste dut momentu bakoitzean debatean desbideratu gabe hitzegiten ari garen gaietaz hitzegitea askosaz interesgarriagoa izango litzateke momentu oro gai berdineran atentzioa desbideratzea baino. Euskara ez baldin bada ez dela, eta ez dakit zer ez baldin bada, ba beste bat, azkenean gaietan ez gara zentratzen, ados gauden honetan, edo ez gaude ados honetan, iruditzen zaigu salatzeko modukoak direla Amnistiaren aldeko mugimenduaren kontra egiten ari direnak. Iruditzen zaigu salatzeko modukoa dela auzitegi nazionalaren jarrera, Garzonen kereilak eta estatu honetan dagoen eskubide falta horiek salatu behar ditugu. ETA-k ez du dena justifikatzen. Salatu dezagun.

IDAZKARIA: Iñaki barkatu, aipamen txiki bat, bozketara joan aurretik. Idazkari bezala esan behar dut, hemen amnistiaren aldeko mozio honetan dirulaguntza bat aurrikusten dela mila eurokoa. Atal hori horrela idatzita, dagoen bezala, diru izendapenik ez dagoen bitartean ezin dela ejekutatatu. Zentzu horretan akordioa hartza, zuzenbide osoz deuseza dela. Idatzita dagoen bezala ezingo litzateke aurrera eraman.

ALKATE-LEHENDAKARIA: PNV-k zerbait esateko ? Ez, ez botatzera pasatuko gara.

Barkatu, nik lehen Aralarrek esan duen ildoari jarraituz, berdina pentsatzen dut Eusko Alkartasunak pentsatzen du hemen, baita ere beste neurri batzuetako esaldiak ere egon beharko luketela, ez naiz gehiegi luzatuko eta beraz, ba bueno abstenitu egingo gara.

PNV-k Ezezkoa,  
Aralarrek, Abstentzioa,  
ANV-k, Aldekoa  
E.A., Abstentzioa

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bigarrenko bozketa, M. Eugenia,  
PNV-k Ezezkoa,  
Aralarrek, Abstentzioa,  
ANV-k, Aldekoa  
E.A., Abstentzioa

Alkateak berriz adierazi nahi du, berez eta partikularki, egia dela herri honetan balorazio politiko garrantzitsuak egin izan ditugula eta guztiak garbi daudela zein diren, ez? Berriro eta zoritxarrez, bai aurreko mozioari jarraiki bai mozio honi jarraiki, zoritxarrez, azken hogeitamar urte hauetan, demokrazioaren inguruko zapalkuntza handiak eman dira, zoritxarrez zapalkuntza horietan herritar asko eta erakunde asko, egunkariak direla edo talde politikoak direla, zoritxarrez beraien eskubideak galtzen ari dira. Iruditzen zait ni Alkate bezala hori salatu beharrean nagoela, eta asko gainera, eta iruditzen zait Espainiarren aldetik datorren edo Espainiako boterearen aldetik datozen zantzuak Andonik zion bezala ikaragarriak direla. Horren aurrean ezin garela ixilik geratu, herritar asko direlako zoritxarrez hori jasaten dutenak, iruditzen zait hauspoa ere behar dela beste balorazio batzuk egiten ari direnak nere alderdiak egiten dituenak eta nik egiten ditudanak egin behar direla baino hala eta guztiz ere iruditzen zaidalako hau gutxienez norbaitek babesteko eta nire irudipenerako norbait beraien eskubideak urratzen ari delako, apoio bat dela, nik Alkate bezala baietzko botua ematen dut, besterik gabe.

IDAZKARIAK: Alkateak bakarrik ? EA-ko beste zinegotziak ez? bakarrik alkateak.

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aldeko botuak: 3 ANV  
Aurkako botuak: 3 EAJ  
Abstentzioak: 3 ( 2 EA eta 1 Aralar)

Azaroak 28ko 2568/1986  
ED-ko 100,2 atalean  
ezarririkoarekin bat bigarren  
bozketa egiten da berdinketa  
hausteko,

Aldeko botuak: 3 ANV  
Aurkako botuak: 3 EAJ  
Abstentzioak: 3 ( 2 EA eta 1 Aralar)

Berdinketak irauten duenez,  
Lehendakariaren kalitate botuak  
erabakitzen du:  
Lehendakariak aurka bozkutzen du.

**ERABAKI DA:**

33/01, amnistiaren aldeko  
mugimenduaren auziaren aurrean  
aurkezten den mozioa ONARTZEA

#### **4.- ESKARI GALDERAK:**

#### **4.- RUEGOS Y P REGUNTAS:**

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Besterik gabe, Eskari galderetara pasatuko gara, PNV-k zerbait esateko ? Bai.

**M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA:** Hain zuzen, mozio honen ingurutik eskari bat egin nahi dugu. Hilabete hauetan ikusten ari garenez mozio ugari sartzen dira Osoko Bilkuretako gai zerrendetan.

Gainontzeko alderdiek, edo, behinik behin EAJko Udal Taldeak ez du mozio horien berri izaten deialdia jaso arte. Beraz, ezin inoiz kontramoziorik erregistratzeko aukerarik izan. Horrek eramaten gaitu kontramozio lirakeenak udal-talde kideen iritzi bezala azaltzera.

Hemendik aurrera ere mozioak ugarituko direla iruditzen zaigunez, kontramozioak deialdi berdinean sartzeko aukera ematen duen prozedura berri bat aztertu dadila eskatzen dugu.

Votos a favor: 3 ANV.  
Votos en contra: 3 PNV  
Abstenciones: 3 ( 2 EA eta 1 Aralar).

De conformidad a lo dispuesto en el art. 100,2 del RD 2568/1986 de 28 de noviembre se procede a realizar una segunda votación

Votos a favor: 3 ANV.  
Votos en contra: 3 PNV  
Abstenciones: 3 ( 2 EA eta 1 Aralar).

Como persiste el empate, decidirá el voto de calidad del Presidente:

El Presidente vota en contra.

**SE ACUERDA:**

**APROBAR** la moción ante el contencioso sumario 33/01 sobre el movimiento a favor de la amnistia.

Alkateak gai-zerrendan sartu asmo dituen mozioen berri ematea, adibidez, gai-zerrenda itxi aurretik, gainontzeko alderdiei, zer iruditzen zaizue ?

Eta gero beste puntu bat ere badaukagu azaltzeko baino ez dauka zer ikusirik mozio honekin, gerorako utziko dugu.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, egia da azkenaldi honetan eta nik ere hori konstatatzen dut, gero eta mozio gehiago ari dira aurkezten zentzu horretan. Gure artean hitzegiten ari gara, mozio politiko gehiago aurkezten direlako eta ohituraz ez delako hainbeste eztabaidatu izan.

Era guztietara iruditzen zait horiek ere ugaritzen ari direlako beste mekanismo batzuk begiratu beharko direla baldin eta etorkizunera begira asko ugaritzen baldin badira eta horrela jarraitzen baldin badu eta ez deritzot gaizki aukera ematea baldin eta mozioak aldeztu aurretik eta denboraz aurkezten baldin badira beste edozeinek ere eskubide berdina izan dezala, mozio horien inguruan zerbait esan, planteatu edo mozio horretaz kontramozio bat aurkeztu dezan.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Eta azkenengo puntu bezala, herrian zeresan ugari ematen ari den kontu baten aurrean gure erabateko desadostasuna adierazi nahi dugu.

Orain egun batzuk ezagutu dugu –komunikabideetan berriz ere, ez inongo Batzorde Informatzailetan- Udalak ez duela Itzurungo hondartzarako Bandera Urdina eskatu, eta gaur agertzen den kontu bat da.

Ez dugu azkenean ulertu zergatik egin duzuen: Itzurungo hondartzak duen kalitatea eskasa iruditzen zaizuelako Bandera Urdina merezi izateko? Zeren, badirudi hori ulertu daitekeela Udal web orrian publikatu dezuenaren arabera, honela baitio: “Bandera Urdina igortzen duen erakundeak bidalitako galdesorta aztertu ondoren, ikusten da Itzurungo hondartzak orain arte juxtu-juxtu bete dituela bandera urdinaren eskakizunak”; alegia, erakundeak eskatzen dituen gutxieneko baldintzak doi-doi betetzen dituela. Baina aldi berean, ez ditu beste baldintza batzuk betetzen, aurrekoak bezain inportanteak direnak eta horien artetik hamaika zerrendatu dituzue:

Alegia, Itzurungo hondartzak ez dauka behar hainako kalitaterik Bandera Urdina edukitzeko. Hondartza eskasa dugu.

Edo, justu kontrako arrazoiarengatik?. Hau da, Bandera Urdina eskasa iruditzen zaizuelako Itzurungo hondartzarentzat? Zeren, hori ere esaten baituzue web-orrian, aurrekoari kontrajarriz:

“Bandera urdinaren balioa zalantzan.

Hasteko, bandera urdinaren kanpaina guztiz eztabaidagarria da, eta badaude banderarena kolokan jartzeko hainbat arrazoi. Eta, gainera, Itzurungo hondartzak, uraren kalitate ona egiaztatuz gero, ez du behar bandera urdinik erakargarria izateko.”

Azken finean, gauza bat eta bere kontrakoa testu berdinean argudiatuz, emaitza berbera da: Zumaiako hondartza, zumaiarrok harrotasunez geurea dugun hondartza, Bandera Urdinik gabe geratu izana.

Horrek zer mesede ekartzen digu zumaiarroki eta Zumaiara berari?. Mesederik bat ere ez. Kaltea errazago mesedea baino ugariago.

Eta Udal bat ez dago inoiz kalte egiteko, debaldeko kaltea kasu honetan.

Bandera Urdinak adierazten duena baina haratago joateko asmoa baldin bada zuena, ados, egin, egin beharrekoak. Baina berdin berdin egin zitezkeen, egitekotan, Bandera Urdina zintzilikatuta ere.

Egin beharreko horien inguruan zer egin duzue azken urte bete honetan?. Ezer ere ez.

Ikusiko dugu datorren urte bete honetan zer egingo duzuen.

EAJ-ko Udal taldeak bere erabateko desadostasuna adierazi nahi du Udal Gobernuak hartutako erabakiaren aurrean.

Eta bide batez, bukatzeko, “playero” jarri garen honetan, web orriko idatzi berdinean beste esaldi xeble bat jasotzen duzue, Itzurun Bandera Urdinik gabe uzteko asmo hori esplikatu nahian:

“Joan den asteko bilkuran gatzetxoei esan genien Santiago hondartza ondo egon arte ez genuela bandera urdinik eskatuko. Erabaki horren atzean Santiagoko hondartzan dauden arazoak aztertzeko eta arazo horiek konpontzeko eskumena nori dagokion zehazteko konpromisoa dago. Era berean, helburu horiek benetan lortu arte lanean aritzeko borondatea berretsi nahi dugu”.

Ibaira, oraindik ere, botatzen diren ur-zikinak ahaztuta lortzen al da Santio hondartzako egoera hobetzea?. Jadarreko berrurbanizazioaren obrak lehiaketara ateratzera zindoazten, proiektuak ur-zikinak jasotzen ez zituela konturatu gabe. Guk ohartarazi behar.



Zer esan nahi du “arazoak konpontzeko eskumena nori dagokion zehazteko konpromisoa hartzen duzuela?”. Hori al da Santiorako duzuen plan guztia?, eskumenak non dauden argitzea?. Kostas-en daude. Ba nik esango dizuet non dauden, Madrileko Kostasen.

Bestalde, zuen lehentasunetarikoa bat Santixo hondartzarako sarbidea egun batean gauzatzea dela, mesedez, zertan den lehentasun hori edo asmo huts hori azaldu beharko duzue. Izan ere, Costasek Santixon egingo duenaren itxaropena galdu duzuela nabari da, gaurko likidazioaren arabera bertan zeuden proiektuak egiteko partida desagertu egiten delako, eta ulergarria da eta ulertu dezakegu inork baino hobeto Costasen proiektuak kudeatzea zenbaiteraino luza daitezkeen, urtea joan eta urtea etorri, baina Santixo hondartza ez zaizuela axola nabarmen gelditzen da.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Bueno Josebak argitu dizun bezala, partida guztiak ezin dira luzatu. Zuk aipatu duzun partida hori, ez dakit nola baino guk dugun abilitatearekin eta gainera konbenzitu eta luzatu zenuten ez aurreko urteetako aurrekontuetatik, baino bi edo hiru aurrekontu atzetik luzatzen eta luzatzen eta luzatzen joan den partida bat izan da. Ez da posible egitea, eta guk ez dugu egin, ondoren likidazioan ikusiko dugu, beste gezur hori bezalakoa ote den edo.

Baino dena den jakin ezazu, Euskalerriko kostadun langileen erakundeak erabaki du Euskalerrian ez dela bandera urdin bakar bat eskatuko aurrean. Zergatik den ez dakit, kostaldeko udaletan PNV-ko alkateak gehiago ere izango dira, nola ez. PNV-k Euskadiko erakundeetan baduelako bere presentzia nabarmena ala ere Zumaia bandera urdinaren alde dago, beste guztiak aurka dauden arren, ez dakit nik fijasio puntu bat ere ez ote dagoen.

Nahiko nukeena, dena den, bandera urdina ez eskatzearen arrazoi batzuk, argi publiko egin. Arrazoiak guretzako dira bandera urdinen atzean, marketing hutsa dagoela, guretzako marketing hutsak egitea bezala da eta gu marketingean behintzat ez dugula parte hartuko.

Bandera urdina lortzeko espedientetik ateratako dokumentuak ikusi ditugu eta bertan gezurrak eta gauza xeble samarrak topatu ditugu. Adibidez, esaten da hondartzen inguruan garraio alternatiboa sustatzeko neurriak abian jarri direla, bidegorria dagoela hondartzara iristen dena, Itzurungo hondartzara bidegorririk nik dakidala ez da iristen eta txostenean hori esaten da.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Itzurungo aldapa bera.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Hori bidegorri, Itzurungo aldapa bidegorria baldin bada...

Ingurumenari buruzko beharretan eta aipatzen diren jardueretan bidegorria bera dago, ez dakit zer ingurumen jarduera izango den bidegorria baino hori bat da.

Beste bat Forondako parke botanikoan bisita gidatuak egiten direla, ez dakit nik behintzat ez ditut ezagutu.

Talaimendin zehar ibilbide ekologiko bat ere bai omen dago, nik ez daukat horren berririk.

Natura areagotzeko literatura lehiaketak egiten omen dira, nik ez daukat literatura lehiaketa honen berririk inondik inora eta hau gutxi baldin balitz kostaldeko kudeaketari buruz aholkularitza eskatzeko Natur taldera jotzen dela esaten da. Hori nik dakidala behintzat ez da egiten.

Hondartzan ur zikinen isurketarik ez dagoela ziurtatzen da eta nik dakidala eta denok dakigula, jakin beharko genuke, piszina aldean zoritxarrez, han badaukagula isurketa bat, bere usainak tragatu behar izaten ditugularik.

Ez hondartzan eta ez inguruko ibaietan ur zikinen isurketa ez dagoela ziurtatzen da. Zuek azkenengo informean esaten dezue urola ibaiak ez duela isurketarik egiten, eta hala ere isurketak egon badaudela, eta jakin badakigu eta hau dena bandera urdina lortzeko izan beharko litzatekeelako eta ematen ez duenez ez dugu eskatuko. Zigiluak bilatzen ibili izan baldin bagara, konturatuko gara ez duela ezer adierazten. Ni egon naiz hondartzetan bandera urdina dutenak zerrikeriz josiak, eta ez gara gu zalantzan jarri dugunak, zalantza hau Zumaiako udaletxean sustatu da eta eman da baino ikusten dugu udal gehienetan eman dela, eta Euskalerrian uste dut hondartza bakarrak eskatu duela eta beste inortxok ere eskatu ez duela, bandera urdina, bera, fraude handi bat zelako eta azkenean fraude batean parte hartzeko edo marketing operazio huts batean parte hartzeko borondaterik ez geneukalako, ez dugu egiten ez duguna egiten dugula esango, ezertarako balio ez duena...

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bueno, azken finean, aukera bat baldin bada bandera urdina ez eskatzea, ba bale. Baina nik, Itzurungo Hondartzari ez dakit zer kalte egiten dion bandera urdinak, zer kalte egiten dion herriari zer kalte egiten dion Zumaiako turismoari eta batez ere zer kalte egiten dion Zumaiako ingurumenari. Baterez egoteak baino hobeto edo gutxienez akaso itxuragatik ere bai.

Errazagoa dela, ez eskatzea eskatzea baino, fijo ere bai, ez daukazula txosten eta espedienterik osatu beharrik. Kontu bat, Itzurunen bizikletaz jende mordoak jeisten dela eta ere bai gainontzekoak oinez joaten direla, hau oraindik naturaloago da. Mundua perfektoa ez dela aitortzen dizut eta desde luego gainera honek ez dituela kontu guztiak sendatzen ere bai, baina gauza batek bestea ez du kentzen eta ez duena balio da gauza batek

deklarazio baliokidea izatea eta guk gure desadostasuna azaltzen dugu, besterik gabe.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Hala eta guztiz ere desadostasun hori oker ez baldin banago, gaur hain zuzen edo atzo Gernikan, Udalarrantzen izan zen bileran planteatu izan bazenu, oker ez baldin banago PNV-ko udaletxe asko eta asko kontra izango zenitun. Hala eta guztiz ere barkatu, M. Eugenia Josebak zerbait esateko badu baita ere.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AKARRAGA JNA: Gauza bat azaldu nahi dut, Santiagoko proiektuari buruz. Dena dela, kasualitatea gaur irratian entzun dut ez dakit zenbatek eskatu duten bandera urdina baina inori ez diote eman, inork ez du eskatu edo inori ez diote eman, eta Bizkaian bati. Santiago urbanizazio proiektuan bi partida zeuden eta lehen esan dudan bezala, ezin dira inkorporatu bat 2005eko aurrekontuetan sartu zelako hirurogeitahamaika mila eta bostehun ingurukoa eta bestea 2006an ehun eta hirurogeitasei milakoa eta ezin dira inkorporatu. Beste gauza bat da inkorporatu baziren eta gero ezin bada ezer egin, ba.. dirua sartu aurrekontuetan ez gastatzeko, betikoa gertatzeko ba.. ez dakit, hobeto da beste zerbaitetan erabiltzea. Baina legez ez zen inkorporatu, legez ezin delako, aurrengo gauza.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Santiagori lehentasun bat nola eman, ez baldin badaukagu diru txintik horretarako, nola markatzen dira lehentasunak?

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bueno eta besterik gabe.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA: Bueno konpententzia dutenak zein diren, jakinda.... Azkenengo hamar urteetan, jakin bagenekien portutako konpententzia, Portu sailarena zela eta Portu sailari eskatu beharko zenitzaizkion azkenengo hamar urteetako estudios de Impacto ambiental, eta ez ziren eskatu, Estudio horietatik aterako ziren neurri zuzentzaileak eta ez dira bete. Kirol Portua egin zen eta Kirol Portua egiteko edo Kirol Portua zuzentzeko aurkeztu zen Bedua inguruan Foru Aldundian plan bat, eta gaur dator bandera urdina eskatzeko plan hori erabiltzen dugun eguna, oraindik, plano hori gauzatzen .... plano hori norbaitek hartuko balu ba agian gu izango gara eta neurri zuzentzaileak Santion hartzen hasi baldin

badira, gu gaudenetik izan dira, hamar urteetan, neurri zuzentzailerik ez da ikusi, guk eskatu ditugu egin behar ziren azterketak, oraintxe hasi dira pixkabat mugitzen. Ari gara norenak diren ezagutzen.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Bai Portukoak, Puertosenak, udaletxearenak, eta Santio Hondartzakoak Costasenak.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko bederatzietan eta nik fede ematen dut.	No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión cuando son las nueve horas y yo la Secrearia doy fe.
---	--

Alkateak

Idazkariak